

JESUS ETA BEZATAKO ELBARRIA

1

Bezata urtegia
dogu kantagarri,
bertan behin jazo zana
gogora ekarri:
Hogeita hamazortzi
urtetan elbarri,
ez zan izan bera nok
uretan ezarri.

3

“Jagi zaitez ta zoaz
agintzen deusut Nik”
eta horra gaixoa
jarri zan zutunik.
Ez eban ezagutzen
holako lagunik,
Jesus izena ere
ez eukan entzunik.

5

“Izan bihotz, aixkide,
zer grazi daukazun!
Jaungoikoak emonda
badozu osasun.
Ez egin pekaturik,
Jaungoikoa lagun,
gorputz eta arimaz
osasuna daizun”.

7

“Larunbata jarria
da gizonarentzat,
ta ez gizona bera
larunbatarentzat”.
Hau da zuzentasuna
Maisu Jesusentzat,
baina birao tzarra
pariseuentzat.

2

Halako baten Jesus
han zan suertatu,
eta berarengana
jakon urreratu.
Eta itandu eutsan:
“Nahi dozu osatu?”.
- “Bai, baina ez da lehenen ni
nok uretan sartu”.

4

“Hori ez da zilegi,
gaur da larunbata;
Jaunaren egunez lan,
haxe erremata!
Gaur nok osatu zaitu,
pekatari da-ta?”.
Pariseuak gogor
hasarre zarata.

6

Bere osagilea
Jesus izan zala,
gaixoak jakinazo
eban bala-bala.
Haxe pariseuen
amorru zitala!
Jesus behin garbitzeko
nola edo hala.

8

Larunbatez gaixoak
osatzen bai ditu
bada Jesus hiltzeko
nahikoa meritu.
Legea jaso eta
gizona txikitu,
Aitaren izenean
semea garbitu.